

2017KO IRAILAREN 18AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko zazpirak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2017KO EKAINAREN 12KO, UZTAILAREN 10EKO ETA UZTAILAREN 26KO BILKUREN AKTAK).

2.- 2017KO UDAL AURREKONTUKO 4/2017 KREDITU ALDAKETA.

3.- 11. EREKUKO OLABERRIA II LURSAILAN ERAIKITZEN ARI DIREN ETXEEN KALE IZENDEGIARI BURUZKO ERABAKIA.

4.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

5.- GALDE ERANTZUNAK.

ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Joseba Izaguirre Arocena Jna. (Zegama Lantzen).

ZINEGOTZIAK

Maria Pilar Elorza Inchausti And. (Zegama Lantzen).

Ibon Zabaleta Urbizu Jna. (Zegama Lantzen).

Urko Gomez Ropón Jna. (EH Bildu).

Imanol Garmendia Iruretagoyena Jna. (EH Bildu).

Olaia Elorza Iñarra And. (EH Bildu).

Maria Luisa Gorrochategui Irastorza And. (EH Bildu).

EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

Izaskun Igoa Arizcorreta And. (Zegama Lantzen). Ez etortzearen arrazoia ematen da.

Juan José Gorrochategui Larrea Jna. (Zegama Lantzen). Ez etortzearen arrazoia ematen da.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2017KO EKAINAREN 12KO, UZTAILAREN 10EKO ETA UZTAILAREN 26KO BILKUREN AKTAK).

Alkateak, 2017ko ekainaren 12ko, uztailaren 10eko eta uztailaren 26ko bilkuren aktetan jasotakoari buruz nolabaiteko oharpenik adierazi nahi duten galdetzen die batzar-kideei.

Ez da inolako oharpenik adierazten, eta beraz, aho batez onartutzat gelditzen dira adierazitako aktak.

2.- 2017KO UDAL AURREKONTUKO 4/2017 KREDITU ALDAKETA.

Kreditu aldaketa zehaztear dagoela adieraziz, gaia mahai gainean uztea adosten da.

3.- 11. EREKUKO OLABERRIA II LURSAILAN ERAIKITZEN ARI DIREN ETXEEN KALE IZENDEGIARI BURUZKO ERABAKIA.

Udalbatzarrak, 2016ko maiatzaren 17an egin zuen bilkuran, "Ormazpei S.L. " enpresari, Javier Corta Echaniz, Patxi Corta Echaniz eta Javier Corta Martinez arkitektoak idatzitako lanen Oinarrizko Proiektuaaren arabera, Zegamako Arau Subsidiarioetako 11. Eremuko – Olaberria II- A.20.11.3 partzelan 20 etxebizitza, garajeak eta trastelekuak eraikitzeko baimena ematea erabaki zuen.

Udal honetan, etxebizitza horien kale-izendegiaren barneko zenbakiak zeintzuk izango diren eskatu da.

Horrenbestez, Zegamako kale-izendegia aztertu ondoren, aurkeztutako proposamena jarraituz, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehen.- Zegamako Arau Subsidiarioetako 11. Eremuko –Olaberria II- A.20.11.3 partzelan eraikitzen ari diren 20 etxebizitzaren helbidea, Ugarte Zelai kalea 10-12 izango dela, hirigunetik Olaberri auzorako norabidean, 12 zenbakitik hasita. Horrenbestez, eraikiko diren ondorengo blokeen helbideak, adierazitakoaren arabera, Ugarte Zelai 8, 6, 4 eta 2 izango dira.

Bigarrena.- Erabaki hau doakienei jakinaraztea.

4.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 015/0717 erabakia, uztailaren 26koa, 4261 fakturen erlazioa onartuz, guztira 36.634,68 eurokoa.
- 016/0717 erabakia, uztailaren 27koa, 4269 fakturen erlazioa onartuz, guztira 19.720,28 eurokoa.
- 017/0717 erabakia, uztailaren 27koa, 4271 fakturen erlazioa onartuz, guztira 1.170,00 eurokoa.
- 018/0717 erabakia, uztailaren 27koa, San Bartolome jaietan postua jartzeko baimena emanez.
- 019/0717 erabakia, uztailaren 27koa, 4309 fakturen erlazioa onartuz, guztira 1.834,62 eurokoa.
- 020/0717 erabakia, uztailaren 27koa, zinegotzi eta talde politikoaren ordainsariak bideratuz.

- 021/0717 erabakia, uztailaren 28koa, zenbait gizarte laguntzen ordainketa bideratuz.
- 022/0717 erabakia, uztailaren 28koa, zenbait fakturen ordainketa bideratuz.
- 023/0717 erabakia, uztailaren 28koa, nominen ordainketa bideratuz.
- 024/0717 erabakia, uztailaren 28koa, gimnasioaren erabilpenaren ondoriozko tasen likidazioak onartuz (urtarrila-ekaina).
- 01/0817 erabakia, irailaren 1ekoa, zenbait gizarte laguntzen ordainketa bideratuz.
- 02/0817 erabakia, irailaren 1ekoa, Goierri Kirol Elkarteari ordainketa bideratuz.
- 03/0817 erabakia, irailaren 1ekoa, zenbait gizarte laguntzen ordainketa bideratuz.
- 04/0817 erabakia, irailaren 7koa, 4571 fakturen erlazioa onartuz, guztira 21.638,65 eurokoa.
- 05/0817 erabakia, irailaren 8koa, zenbait faktura eta gastuen ordainketa bideratuz.
- 06/0817 erabakia, irailaren 8koa, zenbait faktura eta gastuen ordainketa bideratuz.

5.- GALDE ERANTZUNAK.

- Alkateak adierazten du, Ostatuko kudeatzaileak kontratuan zenbait aldaketa, prezioa barne, bideratzeko ahozko eskaera egin diola. Zentzu honetan, bilkurakideak zerbitzuaren kudeaketaz eta eskaintzaz hitz egiten dute, proposamena aztertuko dela adieraziz.
- Imanol Garmendia Iruretaigoyena zinegotziak (EH Bildu), Katalunian bizitzen ari den egoera dela eta, Sant Sadurní d'Anoia eta Seu d'Urgelleko Alkateei elkartasun idatzi bat prestatu eta bidaltzea proposatzen du. Bilkurakideak, hau ontzat irizten dute.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko arratsaldeko zazpiak eta berrogeita hamabost minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

Eginbidea.

Aurrean transkribaturiko akta, orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan zenbakitik zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, zenbakitik zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2017kok

O.E./ VºBº
ALKATEAK/EL ALCALDE

Diligencia.

Para hacer constar que el acta que antecede tiene folios, numerados del al en número de papel timbrado y del al en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a de de 2017.

IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO